



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

ÍNDICE	
AURKIBIDEA	1
1. INTRODUCCIÓN	
1. SARRERA	3
2. REALIDAD: SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN BIZKAIA	
2. ERREALITATEA: BIZKAIKO EMAKUME ETA GIZONEN EGOERA	4
2.1. Demografía	
2.1. Demografia	4
2.2. Acceso y control de los recursos económicos y sociales	
2.2. Ekonomiaren eta gizartearen arloko baliabideak atzitzea eta kontrolatzea	6
2.2.1. TRABAJO PRODUCTIVO Y AUTONOMÍA ECONÓMICA	
2.2.1. LAN EKOIZKORRA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA	6
▪ ÍNDICES DE ACTIVIDAD Y EMPLEO	
▪ JARDUERA ETA ENPLEGU ALORREKO INDIZEAK	6
▪ RENTA MEDIA DE LAS PERSONAS	
▪ PERTSONEN BATEZ BESTEKO ERRENTA	13
▪ ÍNDICE DE DESEMPLEO	
▪ LANGABEZIA-INDIZEA	14
▪ POBREZA Y EXCLUSIÓN SOCIAL	
▪ POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA	16
2.2.2. ACCESO A RECURSOS CULTURALES Y DEPORTIVOS	
2.2.2. KULTURA ETA KIROL ARLOETAKO BALIABIDEAK ATZITZEA	21
▪ PRÁCTICA DEPORTIVA	
▪ KIROL JARDUKETA	21
▪ ACTIVIDADES CULTURALES	
▪ KULTURA ARLOKO JARDUERAK	23
▪ BRECHA DIGITAL	
▪ ARRAKALA DIGITALA	24
2.3. Participación sociopolítica	
2.3. Gizarte eta politika-partaidetza	26
2.4. Organización social corresponsable	
2.4. Erantzunkidetasunezko gizarte antolakuntza	29
▪ USO DEL TIEMPO	
▪ DENBORAREN ERABILERA	29
▪ CUIDADO DE LAS PERSONAS	
▪ PERTSONEN ZAINZA	30
▪ TRABAJO REPRODUCTIVO	
▪ UGALKETA-LANA	30
2.5. Violencia machista	
2.5. Indarkeria matxista	37
DATOS DE ATENCIÓN ESPECIALIZADA	
ARRETA ESPEZIALIZATUAREN DATUAK	37
▪ SERVICIOS DE ACOGIDA	
▪ HARRERA-ZERBITZUAK	38
▪ ASESORAMIENTO JURÍDICO	
▪ AHOLKULARITZA JURIDIKOA	39



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

▪ ATENCIÓN PSICOLÓGICA	41
▪ ARRETA PSIKOLOGIKOA	
▪ DENUNCIAS ANTE LA ERTZAINZA	42
▪ SALAKETAK ERTZAINZAN	
▪ ÁMBITO JUDICIAL	43
▪ ESPARRU JUDIZIALA	
3. REPRESENTACIÓN POR SEXO DEL PERSONAL DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA Y LA ADMINISTRACIÓN FORAL	
3. BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO ETA FORU ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ORDEZKARITZA SEXUAREN ARABERA	45
3.1. Composición de la participación en las Juntas Generales de Bizkaia	
3.1. Bizkaiko Batzar Nagusietako parte-hartzearen osaera	45
3.2. Composición de la participación en la Administración Foral:	
Diputación Foral de Bizkaia e Instituto Foral de Asistencia Social	48
3.2. Parte hartzearen osaketa Foru Administrazioan: Bizkaiko Foru Aldundian eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean	
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA	48
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	
INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL (GUFÉ-IFAS)	55
GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA (GUFÉ-IFAS)	



1. SARRERA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuetako genero-eraginaren ebaluazioa gaztelaniazko “3 R”-en azterketa-ereduan oinarritzen da:

- ERREALITEA (Bizkaiko gizonen eta emakumeen arteko berdintasun edo berdintasunik ezaren egoeraren diagnostikoa),
- ERREPRESENTAZIOA (Sektore Publikoaren eta Foru Administrazio Publikoen maila desberdinetan gizonen eta emakumeen presentziaren inguruko azterketa)
- BALIABIDEAK/EMAITZAK (aurrekontu-programa bakoitzerako baliabideen esleipenaren inguruko azterketa, generoaren ikuspegitik, bai eta generoaren garrantziarekin loturiko jarduketan eta adierazlearen inguruko azterketa ere).

Txosten honetan 3 R-etako lehenengo biak aurkezten dira (ERREALITEA ETA ERREPRESENTAZIOA), eta Bizkaiko emakumeen eta gizonen egoeraren testuinguru-azterketa bat jasotzen da, urteko datuekin (gehienak 2021ekoak), Foru Aldundiak esku hartzeko eskumenak dituen esparruei dagozkienak.

Esparruak eta datuen gaurkotasuna argitaratutako adierazle ofizialek eta elaborazio propioko beste datu batzuek baldintzatzen dituzte, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako informaziotik abiatuta; eta horregatik, atal bakoitzean horiek aipatzen dituzten iturria eta urtea adierazi ditugu.

3 R-etako hirugarrena (Baliabideak/emaitzak) generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenean aztertuko da, zeina ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Foru Arauaren proiektuarekin batera argitaratzen baita¹.

1. INTRODUCCIÓN

La evaluación de impacto de género de los Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia se basa en el **modelo de análisis de las 3 R**:

- REALIDAD (diagnóstico de la situación de igualdad o desigualdad de hombres y mujeres en la sociedad bizkaína),
- REPRESENTACIÓN (análisis de la presencia de hombres y mujeres en los distintos niveles del Sector Público y Administraciones Públicas Forales)
- RECURSOS/RESULTADOS (análisis desde una perspectiva de género de la asignación de recursos para cada uno de los programas presupuestarios, así como las actuaciones e indicadores en relación con la pertinencia y relevancia de género).

El presente informe presenta las dos primeras de las 3 R (REALIDAD Y REPRESENTACIÓN), recogiendo un análisis de contexto de la situación de mujeres y hombres en Bizkaia, con datos anuales (en su mayor parte de 2021) referidos a los ámbitos en los que la Diputación Foral tiene competencias de intervención.

Los ámbitos y actualidad de los datos están condicionados por los indicadores oficiales publicados y otros datos de elaboración propia a partir de información proporcionada por la Diputación Foral de Bizkaia, y por eso en cada apartado hemos indicado la fuente y el año al que se refieren.

La tercera de las 3 R (Recursos/resultados) se analizará en el informe de evaluación previa de impacto en función del género, que se publica junto al proyecto de Norma Foral de Presupuestos de cada ejercicio¹.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan ezartzen denaren arn proeabera.

En cumplimiento de lo previsto en el art. 25 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres y en el artículo 19 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.



2. ERREALITATEA: BIZKAIKO EMAKUME ETA GIZONEN EGOERA

2.1. Demografia (INE 2021 biztanleria-datuak)

2. REALIDAD: SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN BIZKAIA

2.1. Demografía (Datos población INE 2021)

<p>Populazioa BLHn // Población en el THB 1.154.334 Emakumeak // Mujeres: 52% Gizonak // Hombres: 48%</p>
--

Iturria: Estatistikako Erakunde Nazionala (EIN) // Fuente: Instituto Nacional de Estadística (INE)

2021. urteko datuen arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleak, guztira, **1.154.334 pertsonak** dira.

BIZKAIKO BIZTANLERIAREN JAITSIERA.

2021ean 5.109 biztanle gutxiago zeuden 2020an baino, guztiak espainiar nazionalitatea zutenak. Eten egiten da 2016az geroztik ikusitako goranzko joera.

EMAKUMEAK BIZKAIKO BIZTANLERIAREN ERDIA BAINO GEHIAGO DIRA.

Emakumeak biztanleria osoaren % 52 dira, hau da, 596.918. Emakume bizkaitarren % 8ak jatorri atzerritarra du (44.810).

BIZI-ITXAROPENA. (INE 2020 Datuak)

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratutako azken datuen arabera, 2020an bizitza-itxaropena jaiotzean 86 urtekoa da emakumeentzat eta 80 urtekoa gizonezkoentzat. Bi kasuetan behera egin du urtebetez, 2019an ikusitakoarekin alderatuta.

Según los datos correspondientes a 2021, la población del Territorio Histórico de Bizkaia es un total de **1.154.334 personas**.

DESCENSO DE LA POBLACIÓN DE BIZKAIA.

En 2021 se produce un descenso de la población de 5.109 personas respecto a 2020, todas ellas de nacionalidad española. Se frena la tendencia al alza observada desde 2016.

LAS MUJERES SON MÁS DE LA MITAD DE LA POBLACIÓN DE BIZKAIA.

Las mujeres representan el 52 % del total de la población: 596.918. El 8 % de las vizcaínas, 44.810, son de origen extranjero.

ESPERANZA DE VIDA. (Datos INE 2020)

Según los últimos datos publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE), en 2020 la esperanza de vida al nacer se sitúa en 86 años para las mujeres y en 80 años para los hombres. En ambos casos desciende un año con respecto a lo observado en 2019.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

HIRIGUNE ETA LANDAGUNETAKO BIZTANLERIA.

ElNek Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko 2001eko Erroldan **gune motari** dagokionez ematen duen definizioaren arabera,

- *hirigunea biztanle entitate bakarren multzoa da, 10.000 biztanle baino gehiago dituena;*
- *tarteko gunea, 2.001 eta 10.000 biztanle bitartean dituena,*
- *eta landagunea, 2.000 biztanle edo gutxiago dituena.*
- Bizkaiko biztanleriaren % 81,14 hirigunean dauden udalerrietan bizi da,
- % 14,65 tarteko guneetan bizi da,
- eta % 4,21 landagunean dauden udalerrietan. Landagune horietan bizi diren 48.583 pertsonatatik 23.770 emakumeak dira.

POBLACIÓN EN ZONAS URBANAS Y RURALES.

Según la definición que el INE facilita en el Glosario del Censo de Población y Vivienda de 2001 referente al **tipo de zona,**

- *la zona urbana es el conjunto de entidades singulares de población con más de 10.000 habitantes;*
- *la zona intermedia, las que tienen de 2.001 a 10.000,*
- *y la rural, con 2.000 o menos.*
- El 81,14 % de la población de Bizkaia reside en los 20 municipios situados en zona urbana,
- el 14,65 % de la población reside en los 33 municipios de la zona intermedia,
- y el 4,21 % de la población en los 59 municipios de la zona rural, lo que supone un total de 48.583 personas, de las cuales 23.770 son mujeres.

2. taula. Bizkaiko Lurralde Historikoaren udalerriak eremu motaren arabera. 2021. // *Tabla 2. Municipios del Territorio Histórico de Bizkaia según el tipo de zona. 2021.*

Hiriguneko udalerriak // <i>Municipios en zona urbana</i>	Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Bilbao, Durango, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopela, Valle de Trápaga-Trapagaran.
Bitarteko guneko udalerriak // <i>Municipios en zona intermedia</i>	Abadiño, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Bakio, Balmaseda, Berango, Berriz, Derio, Elorrio, Gorniz, Güeñes, Igorre, Iurreta, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Larrabetzu, Lekeitio, Lemoa, Lezama, Loiu, Markina-Xemein, Muskiz, Ondarroa, Orozko, Ortuella, Plentzia, Sondika, Sopuerta, Ugao-Miraballes, Urduliz, Urduña/Orduña, Zaldibar, Zalla, Zamudio.
Landaguneko udalerriak // <i>Municipios en zona rural</i>	Ajangiz, Amoroto, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Artea, Artzentales, Atxondo, Aulesti, Barrika, Bedia, Berriatua, Busturia, Dima, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Garai, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gizaburuaga, Gordexola, Ibarrangelu, Ispaster, Izurtza, Kortezubi, Lanestosa, Laukiz, Lemoiz, Mallabia, Mañaria, Maruri-Jatabe, Mendata, Mendexa, Meñaka, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Otxandio, Sukarrieta, Trucios-Turtzioz, Ubide, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio, Zierbena, Ziortza-Bolibar.

Iturria: Geuk egina, Estatistikako Erakunde Nazionalaren datuetan oinarrituta // *Fuente: Elaboración propia a partir de datos del Instituto Nacional de Estadística (INE)*



2.2. Ekonomiaren eta gizartearen arloko baliabideak atzitzea eta kontrolatzea

2.2.1. LAN EKOIZKORRA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA

- JARDUERA ETA ENPLEGU ALORREKO INDIZEAK (Eustat 2017-2021 eta EEZP 2011-2021 Datuak)

BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA LANDUNAREN HAZKUNDEA

2021eko datuen arabera, biztanleria aktiboa 2020. urtean baino % 0,9 handiagoa izan da. Beraz, 2017tik 2019ra arteko zegoen goranzko joerari heldu zaio berriro.

Enplegudun biztanleriaren egoerari dagokionez ere, igoera txiki bat ikusten da (%5,1) 2020arekin alderatuta; horrek esan nahi du azken urteetan gertatzen ari zen eta 2020an geldialdia izan zuen pixkanakako igoerari ekin zaiola berriro. Hala ere, enplegatuen kopuruak 2017koa baino handiagoa izaten jarraitzen du, % 6,5ean.

SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK

Bizkaian egoera aktiboan dauden gizonezkoen kopurua puntu erdi baino zertxobait gehiago igo da 2020. urtearekin alderatuta. Era berean, modu aktiboan dauden emakumezkoen kopurua, berriz, 0,3 puntu. Horrek, feminizazio-indizea % 48,2an kokatzen du.

Biztanleria landunari dagokionez, bolumenaren igoerak bi sexuetan izan du eragina 2020rekiko: enplegua duten emakumeak puntu bat igo dira, eta gizonak lau puntu inguru. Bestalde, 2017aren aldean, emakume eta gizon landunen kopuruak handiagoak dira oraindik ere (ia 5 puntu eta puntu eta erdi baino pixka bat gehiago, hurrenez hurren).

FEMINIZAZIO-INDIZEA

COVID-19aren krisiaren ondoriozko egoera eta horrek lan-munduan dituen ondorioak gorabehera, enpleguaren feminizazio-indizea % 48,3ra iritsi da 2021ean (aurreko urtean baino % 0,3 gutxiago).

2.2. Acceso y control de los recursos económicos y sociales

2.2.1. TRABAJO PRODUCTIVO Y AUTONOMÍA ECONÓMICA

- ÍNDICES DE ACTIVIDAD Y EMPLEO (Datos Eustat 2017-2021 y SPEE 2011-2021)

AUMENTO DE LA POBLACIÓN ACTIVA Y OCUPADA

Los datos de 2021 muestran un aumento de la población activa de un 0,9 % con respecto al 2020. Se retoma la tendencia ascendente que se venía dando desde 2017 a 2019.

En cuanto a la situación de la población ocupada, también se observa un ligero ascenso (5,1 %) con respecto a 2020; esto supone reemprender el progresivo aumento que se venía dando los últimos años y que había frenado en 2020. No obstante, la cifra de personas empleadas sigue siendo superior a la de 2017 en un 6,5 %.

DIFERENCIAS SEGÚN SEXO

Los hombres en situación activa de Bizkaia han aumentado algo más de medio punto con respecto al 2020, mientras que la población de mujeres en activo lo ha hecho en 0,3 puntos. Esto sitúa el índice de feminización en un 48,2 %.

En cuanto a la población ocupada, el aumento del volumen con respecto a 2020 afecta a ambos sexos: Las mujeres con empleo aumentan un punto, y los hombres aproximadamente cuatro puntos. Por otra parte, con respecto a 2017, las cifras de mujeres y hombres ocupados siguen siendo superiores (en casi 5 puntos y algo más de punto y medio respectivamente).

ÍNDICE DE FEMINIZACIÓN

A pesar de la situación consecuente de la crisis del COVID-19 y sus efectos en el mundo laboral, el índice de feminización del empleo alcanza en 2021 el 48,3 % (0,3 % menos que en año anterior).



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

3. taula. Bizkaiko 16 urte eta gehiagoko biztanleak*, aktiboak edo enplegudunak, sexuaren arabera. 2017-2021 bilakaera. // Tabla 3. Población de 16 y más años* de Bizkaia activa o empleada, según sexo.
Evolución 2017-2021

	Biztanleria aktiboa (milakotan) // Población activa (miles)			Emakumeen JARDUERAREN indizea (%tan) // Índice feminización ACTIVIDAD (%)	Biztanleria enplegatua (milakotan) // Población empleada (miles)			Emakumeen ENPLEGUAREN indizea (%tan) // Índice feminización EMPLEO (%)
	Emakumeak / Mujeres	Gizonak / Hombres	Guztira / Total		Emakumeak / Mujeres	Gizonak / Hombres	Guztira / Total	
2017	261,7	283,1	544,8	48,04	227,2	247,1	474,3	47,90
2018	262,7	283,2	545,9	48,12	230,0	251,1	481,1	47,81
2019	266,1	282,5	548,7	48,50	233,9	253,8	487,7	47,96
2020	260,2	279,9	540,1	48,18	231,1	244,6	475,7	48,58
2021	260,5	280,5	541,0	48,15	232,1	248,7	480,8	48,27
Gehikuntza / Incremento 2021-2017	-1,2	-2,6	-3,8	0,12	4,9	1,6	6,5	0,37
Gehikuntza / Incremento 2021-2020	0,3	0,6	0,9	-0,02	1,0	4,1	5,1	-0,31

Iturria: Eustat – Estatistikako Euskal Erakundea // Fuente: Eustat- Instituto Vasco de Estadística.

*Oharra: Datuok azterterakoan kontuan hartu behar da erretiroko adina aldakorra dela, pertsona batzuek euren lan bizitza luzatzea erabakitzen baitute, eta, beraz, badirela muga beste adin batzuetan kokatzen duten estatistikak. // *Nota: A la hora de analizar estos datos se debe tener en cuenta que la edad de jubilación es variable, debido a que hay personas que deciden alargar su vida laboral, y por tanto hay estadísticas que sitúan el límite en edades diferentes.

GENERO-ARRAKALA

Jarduera eta Okupazio tasei dagokienez, zenbakiak aztertuta 2017an generoaren arloan zegoen etena Jardueran 9,5 puntukoa zen, eta 8,6koa Enpleguan.

Ordutik, generoaren etena jardueran handituz joan da 2019ra arte, sei hamarren jaitsi baitzen (2017ko datuekin alderatuta). Gaur egun, berriz ere gora egin du, eta 9,6koa da.

Bestalde, enpleguari dagokion etenak 2018an igotzen da, behera egiten du 2019an eta 2020an eta berriro gora doa 2021ean. Zehazki, -8,3an kokatzen da, 2020an baino puntu bat inguru gutxiago eta 2017an baino hiru hamarren gehiago.

BRECHA DE GÉNERO

En lo referente a las tasas de Actividad y Ocupación, las cifras mostraban ya en el año 2017 la existencia de una brecha de género en la Actividad de 9,5 puntos, y de 8,6 en el Empleo.

Desde entonces, la brecha de género en la actividad fue aumentando hasta 2019 que descendió 6 décimas (con respecto a 2017). En la actualidad, vuelve a aumentar y se sitúa en un 9,6.

Mientras, la brecha relativa al empleo aumenta en 2018, desciende en 2019 y 2020 y vuelve a ascender en 2021. Concretamente, se sitúa en un -8,3, en torno a un punto menos que en 2020 y tres décimas más que en 2017.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

4. taula. Jarduera eta enplegu tasak 16 urteko eta gehiagoko* biztanleen artean Bizkaian. 2017-2021 bilakaera. // Tabla 4. Tasas de Actividad y Ocupación de la población de 16 y más años* de Bizkaia.
Evolución 2017-2021

	Jarduera-tasa // Tasa de Actividad			JARDUERAren genero- etena // Brecha de género ACTIVIDAD	Enplegu-tasa // Tasa de Empleo			ENPLEGUAre n genero- etena // Brecha de género EMPLEO
	Emakumeak / Mujeres	Gizonak / Hombres	Guztira / Total		Emakumeak / Mujeres	Gizonak/ Hombres	Guztira / Total	
2017	51,5	61,0	56,1	-9,5	44,7	53,3	48,8	-8,6
2018	51,7	61,3	56,3	-9,6	45,2	54,4	49,6	-9,2
2019	51,9	60,8	56,1	-8,9	45,6	54,6	49,9	-9,0
2020	50,6	59,9	55,0	-9,3	44,9	52,4	48,5	-7,5
2021	50,7	60,3	55,3	-9,6	45,2	53,5	49,1	-8,3
Gehikuntza / Incremento 2021-2017	-0,8	-0,7	-0,8	-0,1	0,5	0,2	0,3	0,3
Gehikuntza / Incremento 2021-2020	0,1	0,4	0,3	-0,3	0,3	1,1	0,6	-0,8

Iturria: Eustat – Estatistikako Euskal Erakundea // Fuente: Eustat- Instituto Vasco de Estadística.

*Oharra: Datuok aztertzeko kontuan hartu behar da erretiroko adina aldakorra dela, pertsona batzuek euren lan bizitza luzatzea erabakitzen baitute, eta, beraz, badirela muga beste adin batzuetan kokatzen duten estatistikak. // *Nota: A la hora de analizar estos datos se debe tener en cuenta que la edad de jubilación es variable, debido a que hay personas que deciden alargar su vida laboral, y por tanto hay estadísticas que sitúan el límite en edades diferentes.

KONTRATAZIOAK

EEZPren datuen arabera, 2021. urtean, guztira, 433.911 kontratazio erregistratu ziren, hau da, EAEko guztirako kopuruaren % 50,35.

2020an, COVID-19aren krisia eta horrek ekonomian izandako ondorioak zirela-eta, nabarmen jaitsi zen kontratazioa; % 30,58 2019ari dagokionez, eta 2014an hasitako joera positiboa eten zen. Era berean, kontratu bat sinatu zuten pertsonen kopurua % 21,7 murriztu zen, 123.116 pertsonetara iritsi arte.

2021ean zehar, kontratazioa % 20,05 hazi zen eta kontratatutako pertsonak % 17,20; baina ehuneko horiek ez ziren nahikoak izan kontratuen eta kontratatutako langileen aurreko urteko galera lehengoratzeko.

Emakumeen kontratazio-tasa (% 49,75), bigarren aldiz azken 10 urteetan, gizonena baino baxuagoa da. Lehenengo aldia 2020an izan zen.

Nolanahi ere, emakumei egindako kontratuen urte arteko igoera gizonena baino % 20,87 handiagoa izan zen, % 19,25eko gehikuntzarekin.

CONTRATACIONES

Según los datos del SPEE, en el año 2021 se registraron un total de 433.911 contrataciones, el 50,35 % sobre el total de la CAPV.

En 2020 la crisis del COVID-19 y sus consecuencias sobre la economía, provocaron una importante disminución de la contratación, un 30,58 % con respecto a 2019, y se rompió la tendencia positiva iniciada en 2014. Asimismo, el número de personas que suscribieron un contrato disminuyó en un 21,7 % hasta alcanzar las 123.116 personas.

Durante 2021 la contratación aumentó un 20,05 % y las personas contratadas un 17,20 %, pero estos porcentajes no fueron suficientes para revertir la pérdida de contratos y personal contratado del año anterior.


La tasa de contratación de mujeres (49,75 %), es por segunda vez en los últimos 10 años inferior a la de los hombres. La primera vez fue en 2020.

No obstante, el aumento interanual de los contratos a mujeres fue superior, un 20,87 %, al de los hombres, con el 19,25 % de incremento.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

1. grafikoa. Bizkaian erregistratutako kontratuen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (Urteko guztirakoak). 2011-2021 bilakaera / Gráfico 1. Evolución del número de contratos registrados en Bizkaia según sexo (Totales anuales). Evolución 2011-2021



Iturria: Bizkaiko lan merkatuari buruzko txostena, 2022 (2021eko datuak). Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Okupazioen Behatokia. /
Fuente: Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia, 2022 (Datos 2021). Observatorio de las ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal.

Oharra: Datuok aztertzeko kontuan hartu behar da erretiroko adina aldakorra dela, pertsona batzuek euren lan bizitza luzatzea erabakitzen baitute, eta, beraz, badirela muga beste adin batzuetan kokatzen duten estatistikak. /

Nota: A la hora de analizar estos datos se debe tener en cuenta que la edad de jubilación es variable, debido a que hay personas que deciden alargar su vida laboral, y por tanto hay estadísticas que sitúan el límite en edades diferente.

**SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK
PRESTAKUNTZA- ETA KUALIFIKAZIO-MAILAREN
ARABERA KONTRATAZIOAN**

Prestakuntzaren arloko lehen mailetan (lehen mailako ikasketak edo egiaztatu gabekoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta LHko Goi Graduan gizonen kontratazioak gaititu egiten du emakumezkoena (% 57,0, % 57,8 eta % 51,8 hurrenez hurren).

Zifrek emakumeek gizonak baino prestakuntza handiagoa daukatela erakusten dute Batxilergo mailan eta maila baliokideetan egiten diren kontratazioetan (% 51,9), LHko Gradu Ertainean (% 51,3) eta, batez ere, unibertsitatekoan (% 65,9) emakumeak direlako gehiengoa.

Halaber, EEZPren datuen arabera, 2021. urtean erregistratu ziren kontratazioen guztirako kopuruaren erdia baino gehiago (% 57) oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen egin zitzaizkien (Batxilergo arteko prestakuntza mailak eta berauen baliokideak).

**DIFERENCIAS POR SEXO SEGÚN NIVELES
FORMATIVOS Y CUALIFICACIÓN EN LA
CONTRATACIÓN**

En los primeros niveles formativos (estudios primarios o sin acreditar y Educación Secundaria Obligatoria) y en Grado superior FP la contratación de hombres supera a la de las mujeres (con un 57,0 %, un 57,8 % y un 51,8 % respectivamente).

Las cifras muestran que ellas poseen una mayor cualificación que los hombres, ya que las contrataciones realizadas en los niveles de Bachillerato y equivalentes (51,9 %), Grado medio FP (51,3 %), y sobre todo universitario (65,9 %) se realizan a mujeres.

Asimismo, según los datos del SPEE, más de la mitad del total de contrataciones registradas en 2021 (57 %) fueron realizadas a personas con formación básica (niveles formativos hasta Bachillerato y equivalentes).



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa. ***Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.***

Zehazki, gizonezkoei 2021ean egindako kontratazioen % 63 sartzen dira kategoría horretan, eta emakumeei egindakoak, berriz, kolektibo horren kontratazio guztien % 52 dira.

Egiaztatu da, hainbestez, 2021. urtean zehar, maila akademiko baxuagoa duten Bizkaiko gizonen egoera horretan dauden emakumeei baino aukera gehiago izaten jarraitzen dutela lana aurkitzeko.

SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK ALDI BATERAKO ETA IZAERA MUGAGABEKO KONTRATAZIOETAN

Kontratu-motei dagokienez, 2021eko zifrek erakusten dute % 37,9ko eta % 19,4ko igoera izan dela emakumeei egindako kontratazio mugagabeetan eta aldi baterako kontratazioetan, iazko datuekin alderatuta. Gainera, kolektibo hori berriz ere nagusi da aldi baterako kontratazioetan (% 50,2); bereziki garrantzitsuak izan dira erretiro aurreratuagatiko ordezkapen eta bitartekotasun modalitateetan, egindako kontratazioen % 71,9 eta % 71,0 hartzen dute, hurrenez hurren.

Gizonak, ordea, berriz ere izan dira kontratu mugagabe gehienak lortu dituztenak (% 50,7).

Concretamente, el 63 % de las contrataciones realizadas a hombres en 2021 entran en esa categoría, mientras que las efectuadas a mujeres representan el 52 % del total de contrataciones de este colectivo.

Se constata que a lo largo de 2021 los hombres de Bizkaia con menor nivel de instrucción siguen contando con mayores oportunidades que las mujeres en su misma situación.

DIFERENCIAS POR SEXO EN LOS TIPOS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL-INDEFINIDA

Respecto a los tipos de contratos, las cifras de 2021 muestran un aumento del 37,9 % y del 19,4 % en las contrataciones indefinidas y temporales realizadas a mujeres con respecto al año pasado. Además, este colectivo se sitúa nuevamente a la cabeza en las contrataciones temporales (50,2 %), y siendo especialmente relevantes en las modalidades de sustitución por jubilación anticipada e interinidad, en las que abarcan el 71,9 % y 71,0 % de las contrataciones realizadas respectivamente.

Mientras, los hombres vuelven a representar la mayoría en las contrataciones indefinidas (50,7 %).



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

5. taula. Erregistratu diren kontratazioak modalitatearen eta sexuaren arabera. Bizkaia, 2021 //
Tabla 5. Contrataciones registradas según modalidad y sexo. Bizkaia, 2021

Kontratazio Modalitatea // Modalidad de Contratación	Erregistratu diren kontratuen kopurua // Número de contratos registrados			% guztira / % Total	% Ald. / % Var. 2021/2020
	Gizonak / Hombres	Emakumeak / Mujeres	Guztira / Total		
Guztira kontratu mugagabeak // Total contratos Indefinidos	20.585	19.982	40.567	9,35	40,56
Mugagabea arrunta // Indefinido ordinario	11.086	12.745	23.831	5,49	29,29
Beste kontratu motak // Otras modalidades de contratos	9.499	7.237	16.736	3,85	60,48
Guztira aldi baterako kontratuak // Total contratos Temporales	197.476	195.868	393.344	90,65	18,27
Obra edo zerbitzua //Obra o Servicio	72.586	46.411	118.997	27,42	15,73
Aldi batekoa ekoizpenaren zirkunstantziak // Eventual circunstancias de la producción	96.967	87.896	184.863	42,60	22,87
Interinitatea // Interinidad	24.179	59.168	83.347	19,21	11,52
Beste kontratu motak // Otras modalidades de contratos	3.744	2.393	6.137	1,41	34,00
Guztira // Total	218.061	215.850	433.911	100	20,05

Iturria: Bizkaiko lan merkatuari buruzko txostena, 2022 (2021eko datuak). Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Okupazioen Behatokia. //
Fuente: Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia, 2022 (Datos 2021). Observatorio de las ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal.

6. taula. Erregistratu diren kontratazioak lansaioaren arabera. Bizkaia, 2021. //
Tabla 6. Contrataciones registradas según jornada laboral. Bizkaia, 2021.

Erregistratu diren kontratuen kopurua // Número de contratos registrados	Lansaioa // Jornada Laboral	
	Osoa // Completa	Partziala // Parcial
Guztira // Total	259.777 (60,16 %)	172.018 (39,84 %)
% 2021/2020 Alderakuntza // % Variación 2021/2020	16,68 %	24,89 %

Iturria: Bizkaiko lan merkatuari buruzko txostena, 2022 (2021eko datuak). Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Okupazioen Behatokia. //
Fuente: Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia, 2022 (Datos 2021). Observ. de las ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal.

Oharra: Taulan ez dira jasotzen 2021ean erregistratutako aldizkako lan-kontratu finkoak: 2.116 (kontratu guztien % 0,49) //

Nota: No se incluyen en la tabla los contratos fijos discontinuos registrados en 2021: 2.116 (0,49% del total.)



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa. *Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.*

SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK LANALDI OSOKO ETA LANALDI PARTZIALEKO KONTRATAZIOETAN

2021. urtean berariaz izan dira gehiengoa Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuan erregistratu diren lantsaio osoko kontratuen kopurua (% 60,16).

Zerbitzu horrek egin duen Lan Merkatuari buruzko txostenaren arabera, gizonek gehiengoa dute lantsaio osoko kontratazioan (gizonen % 72,7), eta lantsaio partziala duten langile gehienak emakumeak dira (emakumeen % 52,5).


Horrek gizonen aldeko abantaila adierazgarria islatzen du, batik bat, kontuan izaten baditugu gizonen (59.376) eta emakumeen (112.642) egindako kontratazio partzialak.

DIFERENCIAS POR SEXO EN LAS CONTRATACIONES A JORNADA COMPLETA y JORNADA PARCIAL

En 2021 ha sido especialmente mayoritario el número de contratos de jornada completa registrados por el Servicio Público de Empleo Estatal (60,16 %).

Según el informe del Mercado de Trabajo realizado por este servicio, los hombres son mayoría en la contratación a jornada completa (72,7 % de los hombres), siendo mujeres la mayoría de las personas que desarrollan una jornada laboral parcial (52,5 % de las mujeres).

Esto refleja una ventaja significativa a favor de los hombres, sobre todo si se tiene en cuenta el número de contrataciones parciales realizadas a hombres (59.376) y a mujeres (112.642).



Iturria: Bizkaiko lan merkatuari buruzko txostena, 2022 (2021eko datuak). Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Okupazioen Behatokia. / Fuente: Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia, 2022 (Datos 2021). Observatorio de las ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

▪ **PERTSONEN BATEZ BESTEKO ERRENTA**
(Eustat 2015-2019ko datuak)

DESBERDINTASUN HANDIA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BATEZBESTEKO ERRENTEN ARTEAN

Desoreka horiek, adibidez emakumeei aldi baterako kontratu gehiago egiteak edo emakumeek lanaldi partziala sarriago edukitzeak, eragin nabarmen eta garrantzitsua dute emakume eta gizonen batez besteko errentan.

Dena den, datu horiek ez dute azaltzen emakumeentzat batz besteko errentari dagokionez egon dagoen hain distantzia itzela.

Datu eguneratuen faltan, Bizkaian, 2019ko batez besteko errenta pertsonalaren guztizko zenbatekoa 21.959 € izan zen, 2018an baino 1.073 € gehiago.

Eustatek argitaratu dituen 2019. urteari buruzko azkeneko datuek, sexuen arabera bereiztuta, gorabehera handiak islatzen ditu Bizkaiko gizonen eta emakumeen batez besteko errenta pertsonalen artean eta, autonomia-erkidegoan gertatzen den bezala, errenta horrek 10.048 euro gutxiagokoa delako emakumeen kasuan.

Zehazki, honako hauek izan dira Bizkaiko Lurralde Historikoko batez besteko errenta pertsonalaren datuak: gizonek 27.232 € eta emakumeek 17.184 €. Hau da, 2018. urtearekin alderatuta, emakumeen errenta 1.331 euro handiagoa izan da eta gizonena 785 eurokoa.

Emakumeei dagozkien errentek, gizonetzkoen dagozkienak baino igoera handiagoa izan arren, oraindik ere agerian uzten dute emakumeek erosteko ahalmen txikiagoa dutela, eta hori erabakigarria da gizarteko, garapeneko eta bizi-kalitateko eremu guztietako aukeretan.

▪ **RENTA MEDIA DE LAS PERSONAS**
(Datos Eustat 2015-2019)

GRAN DESIGUALDAD ENTRE LAS RENTAS MEDIAS DE MUJERES Y HOMBRES

Estos desequilibrios, como la mayor temporalidad en las contrataciones realizadas a mujeres y la mayor parcialidad de las jornadas laborales, tienen un impacto determinante en la renta personal media de mujeres y hombres.

Sin embargo, esos datos no explican la distancia tan elevada que existe en detrimento de las rentas medias para las mujeres.

A falta de datos actualizados, en Bizkaia el total de la renta personal media en 2019 fue de 21.959 €, 1.073 € más que en 2018.

Los últimos datos desagregados por sexo, publicados por Eustat, relativos a 2019, muestran un gran contraste entre las rentas personales medias de los hombres y mujeres de Bizkaia, que al igual que ocurre en la Comunidad Autónoma, asciende a 10.048 € menos en el caso de las mujeres.

Concretamente, la renta personal media en el THB asciende en el caso de los hombres a 27.232 €, mientras que en el caso de las mujeres es de 17.184 €. Esto supone un incremento con respecto al año 2018 de 1.331 € en el caso de las mujeres y de 785 € en la renta de los hombres.

Las rentas correspondientes a las mujeres, a pesar de mostrar un aumento superior a las de los hombres, siguen evidenciando el menor poder adquisitivo de ellas, determinante en las oportunidades de todos los ámbitos sociales, del desarrollo y de la calidad de vida.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

7. taula. Pertsonen batez besteko errenta Bizkaian sexuaren arabera. 2015-2019 bilakaera. // *Tabla 7. Renta personal media en Bizkaia según sexo. Evolución 2015-2019*

	Bizkaiko Lurralde Historikoa // Territorio Histórico de Bizkaia		
	Guztira // Total	Gizonak // Hombres	Emakumeak // Mujeres
2015	19.589 €	24.899 €	14.769 €
2016	19.818 €	25.031 €	15.078 €
2017	20.654 €	26.168 €	15.661 €
2018	20.886 €	26.447 €	15.853 €
2019	21.959 €	27.232 €	17.184 €
Gehikuntza// Incremento 2019-2018	1.073 €	785 €	1.331 €
Gehikuntza// Incremento 2019-2015	2.370 €	2.333 €	2.415 €

Iturria: geuk egina, Eustat-eko datuetan oinarrituta. // Fuente: Elaboración propia a partir de datos del Eustat.

▪ **LANGABEZIA-INDIZEA**
(EEZPren 2011-2021 datuak)

Garrantzitsua da kontuan hartzea langabezian dagoen biztanleria zenbatesteko, Lanbideren langabeziaz errendetan izena emanik duten pertsonak hartzen direla kontuan.

Beraz, horren barruan ez dira sartzen azpienplegatuta dagoen edo langabe ezkutua den biztanleria, hau da, gehienbat emakumeak direnak.

LANGABEZIAN DAUDEN ESKATZAILEEN EBOLUZIOA

Erregistratuta dauden langabetuak diren pertsonen bilakaerari dagokionez, sexuaren arabera alde nabarmenak aurki daitezke EEZPk Bizkaiko lan merkatuari buruzko 2022ko txostenean argitaratu duen 2021eko datuen arabera.

▪ **ÍNDICE DE DESEMPLEO**
(Datos SPEE, 2011-2021)

Es importante tener en cuenta que la población desempleada se contabiliza entre quienes están inscritas en las listas de desempleo de Lanbide.

No incluye por tanto a la población subempleada o desempleada oculta, que está formada mayoritariamente por mujeres.


EVOLUCIÓN DEMANDANTES EN DESEMPLEO

En la evolución de las personas paradas registradas según sexo, se encuentran algunas diferencias significativas, según los datos de 2021 publicados por el SPEE en el Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia del 2022.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

3. grafikoa. Bizkaiko LHn erregistratu den langabeziaren bilakaera, sexuen arabera. 2011-2021 / Gráfico 3. Evolución del paro registrado en el T.H. de Bizkaia según sexo. 2011-2021



Iturria: Bizkaiko lan merkatuari buruzko txostena, 2022 (2021eko datuak). Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Okupazioen Behatokia. /

Fuente: Informe del Mercado de Trabajo de Bizkaia, 2022 (Datos 2021). Observatorio de las ocupaciones del Servicio Público de Empleo Estatal.

Oharra: Datuok aztertzerakoan kontuan hartu behar da erretiroko adina aldakorra dela, pertsona batzuek euren lan bititza luzatzea erabakitzen baitute, eta, beraz, badirela muga beste adin batzuetan kokatzen duten estatistikak. /

Nota: A la hora de analizar estos datos se debe tener en cuenta que la edad de jubilación es variable, debido a que hay personas que deciden alargar su vida laboral, y por tanto hay estadísticas que sitúan el límite en edades diferentes.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN LANGABEZIAREN JAITSIERA

EEZPren datuen arabera, 2021. urtean guztira, 64.878 enplegu-eskatzaile erregistratu ziren, EAEn guztirako kopuruaren % 56,49.

11 urte hauetan zehar, % -13,63 jaitsi da langabezian geratu diren emakumeen kopurua eta % -27,96 jaitsi da gizonena.

EEZPren txostenak ezarri du 2021. urtean Bizkaian erregistratu den urtearteko langabeziaren aldaketak nabarmenki behera egin duela, bai emakumeen kasuan (3.940 pertsona gutxiago, % -10,01) eta bai gizonezkoen kasuan ere (4.262 langabetu gutxiago, % -12,65).

LANGABEZIA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA

Adina kontuan hartuta, oro har, 2021ean, adin-multzo guztietako enplegu-eskatzaileen kopuruak behera egin du, bai gizonezkoen kasuan bai emakumezkoen kasuan ere. 25etik 54 urtera bitarteko pertsonen kasuan, zenbatekoak 2019an eskuratutakoak baino baxuagoak dira.

DESCENSO DEL DESEMPLEO DE MUJERES Y HOMBRES

Según los datos del SPEE, en el año 2021 se registraron un total de 64.878 demandantes de empleo, un 56,49 % sobre el total de la CAPV.

A lo largo de estos 11 años, ha habido un decremento de las mujeres en situación de paro del -13,63 % y del -27,96 % para los hombres.

El informe del SPEE señala que en 2021 la variación interanual del paro registrado en Bizkaia ha tenido un descenso considerable tanto en el caso de las mujeres (3.940 personas menos, un -10,01 %) como en el de los hombres (4.262 parados menos, el -12,65 %).

DESEMPLEO SEGÚN EDAD Y SEXO

Por edades, en general en 2021, han descendido las personas demandantes de empleo en todos los tramos de edad y tanto en el caso de los hombres como en el de las mujeres. En el caso de las personas de 25 a 54 años las cifras se sitúan por debajo de las obtenidas en 2019.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

EMAKUMEEN LANGABEZIA HANDIAGOA

Hala ere, gizon baino emakume gutxiago daude lanik gabe, zehazki, emakumeek portzentajerik handienak dituzte adin-tarte guztietan, 16 urtetik 24 urte bitarterako adin tartean ezik, kasu horretan, gizonezkoak % 52,5 baitira.

EMAKUMEEN KUALIFIKAZIO ETA LANGABEZIA HANDIAGOA

Azkenik, esan behar da enplegua eskatzen duten pertsona langabetuen prestakuntza-mailan ere aldeak daudela.

Azken 5 urte hauetako datuetan ere ikusten den bezala prestakuntza-maila guztietan emakumeen presentzia sendoagoa da, baita orain arte beti gizonezkoenak izan diren mailen kasuan ere.

Gaur egun emakumezkoak nagusi dira prestakuntzaren arloko maila guztietan eta portzentajeak % 52,3 eta % 62,6 artean daude.

Horrenbestez, argi dago emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa izan arren ez dutela lortzen gizonen neurri berean laneratzea.

▪ **POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA**
(Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2016-2020ko datuak)

Pobreziaren eta Gizarte-ezberdintasunen Inkestan, pobreziaren eta benetako ongizatearen gabeziaren PGEI adierazleek arrisku-egoerak (ez direnak behar bezala heltzen beharizanezi eta prekarietateari dagokionez) herritarren eguneroko bizitzan behar adina konpentsatuta ez dauden inguruabarrak murrizten saiatzen dira; hori dela eta, ezinezkoa da gure gizartearen espero den gutxieneko ongizate-maila lortzea.

Honela, hurbilketa bat egin nahi da fenomeno horien benetako eraginera.

2020ko azken inkestan, adierazle desberdinen baterako gogoetak beheranzko ikuspegi orokor bat eskaintzen du.

MAYOR DESEMPLEO DE MUJERES

No obstante, hay menos hombres en situación de paro que mujeres, concretamente ellas representan un porcentaje superior al de los hombres en todos los tramos de edad, excepto en el de 16 a 24 años en el que ellos alcanzan el 52,5 %.

MAYOR CUALIFICACIÓN DE LA MUJERES Y MAYOR DESEMPLEO

Finalmente, en el nivel de instrucción de las personas paradas demandantes se distinguen también diferencias.

Tal y como se venía viendo en los datos correspondientes a los últimos 5 años, la acentuada presencia de las mujeres en todos los niveles formativos era cada vez mayor; incluso en aquellos niveles que habitualmente eran liderados por hombres.

Actualmente, las mujeres son mayoría en todos los niveles de formación, con porcentajes que oscilan entre el 52,3 % y el 62,6 %.

Por consiguiente, es evidente que las mujeres a pesar de poseer una mayor cualificación no consiguen colocarse laboralmente en la misma medida que los hombres.

▪ **POBREZA Y EXCLUSIÓN SOCIAL**
(Departamento de Empleo y Políticas Sociales de Gobierno Vasco, datos 2016-2020)

En la Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales, los indicadores EPDS de pobreza y ausencia de bienestar real tratan de delimitar aquellas circunstancias en las que las situaciones de riesgo, de insuficiente cobertura de las necesidades y de la precariedad, no se encuentran suficientemente compensadas en la vida cotidiana de la población, de forma que sea posible acceder al nivel mínimo de bienestar esperado en nuestra sociedad.

De esta forma se trata de ofrecer una aproximación al impacto real de estos fenómenos.

En la última encuesta de 2020 la consideración conjunta de los distintos indicadores ofrece una visión general de carácter descendente.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa.
Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.

ELIKADURA-SEGURTASUNAREN HOBEKUNTZA

Elikadura-segurtasunik ezaren arazoa murriztu egin da; hobekuntza hori garrantzitsua da, izan ere, mailarik baxuena (% 3,7) da 2000. urtetik. Ildo beretik, behera egin du momenturen batean gose-sentsazioa sentitu duten pertsonen ehunekoa. Era berean, jaitsi egin da bi egunean behin otordu proteiniko bat egin ezin duten pertsonen proportzioa.

SEGURTASUNA DUTEN PERTSONEN HANDITZEA OINARRIZKO HORNIDURA BATZUETAN

Bestalde, hornidura-mozketek (ura, argia, telefonoa, etab.) eragindako pertsonen proportzioa murriztu egin da; murriztu egin da, era berean, alokairuen, kredituen, hipoteken edo ordainagirien ordainketetan gertaturiko ez ordaintzeen edo atzeratzeen intzidentzia; arrazoi ekonomikoak direla-eta bigarren eskuko arropa erostera jo behar duten pertsonen ehunekoa; eta azken neguan hotza pairatu zuten eta etxean tenperatura egokia lortu ezin izan zuten pertsonen proportzioa.

2012-2018 aldiarekin alderatuta, pobreziaren adierazpenik ohikoenak murrizteak mugatzen duen esparru horretan ere gabezia larri batzuk ematen dira, eta horiek 2018 eta 2020 urteen artean gertaturiko narriaduraren erakusle dira.

BALIABIDE PROPIOEN ERABILERAREN IGOERA ETA ALDAKETAK ETXEBIZITZA- ETA ESKOLATZE-ORDAINKETEI AURRE EGITEKO

Mantendu egin da apur bat gorantz doan ondasunen enbargoek eragindako pertsonen ehunekoaren joera eta bortizki igo da arazo ekonomikoei aurre egin behar izateko salbuespenezko neurrietara (hala nola jabetzen salmenta edo etxebizitza- edo eskola-aldaketa) jotzeko beharra.

Aldaketa hori kualitatiboki oso garrantzitsua da, izan ere, oso lotuta dago COVID-19aren esparruko krisi ekonomiko partikularren gizarte-ondorioekin, bereziki, gizarte- eta ekonomia-itxieraren fasean zehar.

MEJORA DE LA SEGURIDAD ALIMENTARIA

Se reduce la problemática de inseguridad alimenticia; esta mejora es relevante ya que es el nivel más bajo (3,7 %) desde el año 2000. En la misma línea, desciende el porcentaje de personas que en algún momento habían experimentado la sensación de hambre. También baja la proporción de personas que no pueden permitirse acceder a una comida proteínica cada dos días.

AUMENTO DE PERSONAS CON SEGURIDAD EN ALGUNOS SUMINISTROS BÁSICOS

Por otra parte, la proporción de personas afectadas por cortes de suministro (agua, luz, teléfono, etc.) se reduce; al igual que lo hacen de forma relevante, la incidencia de los impagos o atrasos en el pago de alquileres, créditos, hipotecas o recibos; el porcentaje de personas que señalan la necesidad de recurrir a prendas de segunda mano por motivos económicos, y la proporción de personas que sufren frío durante el último invierno sin conseguir disfrutar de una temperatura adecuada en la vivienda.

En este marco delimitado por la reducción del impacto de las expresiones más habituales de la pobreza con respecto al periodo 2012-2018 también se dan algunas carencias graves que muestran un deterioro entre 2018 y 2020.

ASCENSO DEL USO DE RECURSOS PROPIOS Y CAMBIOS PARA AFRONTAR PAGOS DE VIVIENDA Y ESCOLARIZACIÓN

Se mantiene la tendencia ligeramente ascendente del porcentaje de personas afectadas por los embargos de bienes y aumenta de forma brusca la necesidad de recurrir a medidas extraordinarias como la venta de propiedades o el cambio de vivienda o de colegio para hacer frente a problemas económicos.

Este cambio es cualitativamente muy relevante, ya que está estrechamente vinculado a las consecuencias sociales de la particular crisis económica en el marco del COVID-19, en especial durante la fase de cierre social y económico.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa. *Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.*

EZUSTEKOETARAKO BALIABIDEEN POLTSAREN JAITSIERA: ZORPETZEKO ARRISKU HANDIAGOA

2016tik 2018ra bitarteko aldiko kopuruak ikusita, ondorioztatzen da asko igo zela aurreikusi gabeko gastu bati aurre egiteko gaitasunik ez duten herritarren ehunekoa. Hau da, oinarrizko larrialdi-kasu batean erabili ahal izateko gutxieneko aurrezki-oinarririk gabe.

Adierazle hori murriztu egin zen 2020an, baina murrizketa hori zuzenean lotzen da 1996tik gehieneko gorakada izan duen beste adierazle batekin. Zehazki, beharriaz (oinarrizkoak edo ez) heltzeko ezintasun-egoerekin loturiko zorpetzeko arriskuari dagokiona. Zorpetze hori, diru-sarrerei dagokienez, gehiegizko gastuekin lotzen da.

POBREZIA ETA PREKARITATE HANDIAGOA EMAKUMEAK BURU DIREN ETXEETAN

Gaur egunera arte, pobrezia eta benetako prekarietate egoeren intzidentzia, normalean, handiagoa zen emakumeen artean. Emakume bat buru duten etxeen tasaren desberdintasuna mantendu egiten da gizon bat buru duten etxeekin alderatuta.

Emakumeen pisu sozialaren aurrerakadak, baita familien barruan ere, etxeetako barne-antolamendua aldatu du, eta geroz eta gehiago dira erreferentziazko pertsona gisa emakume bat dutenak. 2020an, emakumeak buru ziren etxeetan biltzen ziren benetako pobrezia kasuen % 47,3.

BIZKAIAN BENETAKO POBREZIA-TASAREN JAITSIERA

Lurralde-esparruari dagokionez, Bizkaiko egoera nabarmen hobetu da; izan ere, krisien aurrean erresilientzia handiena duen lurraldea da, eta COVID-19aren aurreko prozesu ekonomiko onuragarriez baliatzen da.

Hala, benetako pobrezia tasa 2018an % 7,0koa izatetik 2020an % 5,4koa izatera igaro da, eta 2008tik izan den bigarren txikiena da, urte hartan izandakoaren (% 5,2) ia antzekoa.

Jaitsiera horren ondorioz, eta EAEko beste bi lurraldeetan gora egin duela aintzat hartuta, Bizkaiko ekarpena Euskadiko benetako pobrezia egoeren banaketari dagokionez, % 50,5koa izan zen 2020an.

DESCENSO DE LA BOLSA DE RECURSOS PARA IMPREVISTOS: MAYOR RIESGO DE ENDEUDAMIENTO

Las cifras del periodo entre 2016 y 2018 mostraban una fuerte subida en la proporción de población sin capacidad para abordar un gasto imprevisto. Es decir, sin la base de ahorros mínima a la que poder recurrir en caso de emergencia básica.

Este indicador desciende en 2020, pero se relaciona directamente con otro indicador que muestra el máximo incremento desde 1996. Concretamente, aquel relativo al riesgo de endeudamiento asociado a las situaciones de insuficiente cobertura de las necesidades (sean básicas o no) y que está vinculado a un exceso de gasto respecto a los ingresos.

MAYOR POBREZA Y PRECARIEDAD EN LOS HOGARES ENCABEZADOS POR MUJERES

Hasta el momento, la incidencia de las situaciones de pobreza y precariedad real era habitualmente, superior en las mujeres. La diferencia entre la tasa de los hogares con una mujer al frente aún se mantiene respecto a los hogares con un hombre al frente.

El avance del peso social de las mujeres, también dentro de las familias, ha alterado la distribución interna de los hogares, con un papel creciente de los que sitúan a una mujer como persona de referencia. En los hogares encabezados por mujeres se concentra también el 47,3 % de los casos de pobreza real de 2020.

DESCENSO DE LA TASA DE POBREZA REAL EN BIZKAIA

Con respecto al ámbito territorial se observa una relevante mejora de la situación en Bizkaia; siendo el territorio con mayor resiliencia ante las crisis y beneficiándose de los procesos económicos favorables previos a la del COVID-19.

Así, la tasa de pobreza real pasa de un 7,0 % en 2018 a un 5,4 % en 2020, convirtiéndose esta en la segunda más baja desde 2008 y resulta prácticamente similar a la de aquel año (5,2 %).

Como consecuencia directa de esta bajada y en un contexto de repunte en los otros dos territorios de la CAPV, la contribución vizcaína a la distribución de las situaciones de pobreza real en Euskadi se sitúa en un 50,5 % en 2020.



Bizkaiko emakumeen eta gizonen testuinguruaren azterketa. *Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia.*

KALTERIK HANDIENAK PAIRATU DITUZTEN ETA HAURREN POBREZIARAKO ARRISKU HANDIENA DUTEN ETXE-MOTAK

2020ko pobrezia errearen eta ongizate ezaren kasuak honako hauetan eman ziren batez ere:

- Europar Batasunetik kanpokoak diren atzerriko pertsonen etxeak.
COVID-19aren krisiak eragin oso handia izan du kolektibo honetan, eta benetako pobrezia tasa igo egin da; % 38,0ra arte 2020an.
Egoera horrek kontraste handia erakusten du nazionalitate espainiarreko pertsona bat buru duten etxeekin, non tasa bera 11,8 aldiz txikiagoa den, % 3,2.
- Okupazio egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (45 urtetik beherakoak edo gorakoak).
Oro har, guraso bakarreko familiak eta seme-alabak dituzten bikoteak pobrezia errearen kasuen % 75,2 izan ziren 2020an.
Seme-alabak dituzten bikoteen benetako pobrezia tasa zertxobait jaitsi zen arren 2020an, pandemian 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien zati baten bizi-baldintzak okerrera egin duenez, benetako pobrezia gorakada handia izan du mota horretako etxeetan. Horren ondorioz, haurren pobrezia intzidentziak gora egin du automatikoki.
- Okupazio egonkorrik ez duten pertsonen osatutako familia-taldeak (45 urtetik beherakoak edo gorakoak).
